# BULEGOKO PAPERA – Oinarrizko Maila

## *Hornitzaileen checklista: Ingurumen irizpideak*

### 1. ERANSKINA: PRODUKTUAREN BETEKIZUNAK

Markatu BAI zutabeko laukitxoa, baldin eta derrigorrezko espezifikazio guztiak eta espezifikazio baloragarriak betetzen badituzu.

Derrigorrezko irizpideak betetzen ez badituzu, edota betetzen dituzula egiaztatzeko abalik aurkezten ez baduzu, zure eskaintza ez dugu esleipen prozedurako hurrengo faseetan kontuan hartuko.

Espezifikazio baloragarrien kasuan, espezifikazioak betetzen dituzula egiaztatzeko abalik aurkezten ez baduzu, ez dizugu horri dagokion punturik emango. Puntuazio horrek abantaila gehien dituen eskaintza identifikatzeko balio du.

| Produktua: | | |
|---|---|---|
| **DERRIGORREZKO IRIZPIDEAK** | **BAI** | **ABAL MOTA/ MEMORIAKO ORRIALDEA** |
| Paperaren % 30 edo gehiago ingurumen ziurtagiriren bat (FSC, PEFC edota antzekoa) duten basoetatik ateratako egur zuntzez edota zuntz birziklatuz egina | ☐ | 1,2,3,4 |
| Oinarrizko klororik gabe zuritua (ECF) | ☐ | 1,2,5,6 |
| ISO 5630-1:1991 arauaren, DIN 6738:1999 [LDK24-85] arauaren edota baliokidea den beste arau baten arabera, 100 urtetik gorako iraupena izatea | ☐ | 7 |
| Europako EN 12281:2003 arauaren edo baliokidea den beste arau baten arabera, inprimatzeko eta fotokopiatzeko baldintza teknikoak | ☐ | 7 |

| IRIZPIDE BALORAGARRIAK | PUNTUEN EHUNEKOA[1] | BAI | ABAL MOTA/ MEMORIAKO ORRIALDEA |
|---|---|---|---|
| Paperaren ingurumen hobekuntzak | | | |
| Modu iraunkorrean kudeatutako basoetatik lortutako zuntzen edota zuntz birziklatuen portzentaje handiagoa | | ☐ | 1,2,3,4[2] |
| Batere klororik gabeko zuritzeko prozesua (TCF, PCF…) | | ☐ | 5,6 |
| Zuritasun maila txikiagoa | | ☐ | 5 |
| Ekoizpen prozesuko ingurumen hobekuntzak | | | |
| Isurien eta konposatu kimikoen ingurumen irizpideak beteta, I. motako ekoetiketaren moduko batean definitua | | ☐ | 1, 2 |
| Ontziak eta bilgarriak | | | |
| Paperezko/kartoizko bilgarriak | | ☐ | 6 |
| Bilgarriaren gutxienez % 80 birziklatua | | ☐ | 5 |

[1] Ingurumen alderdietan esleipen irizpideetarako zehaztu denaren arabera.

[2] Lizitatzaileak portzentajea zenbatekoa den zehaztu beharko du. FSC eta PEFC zigiluetarako, eskuliburuko 4. kapitulua kontsultatu.

**ARGIBIDEAK**

«**Abal mota/Memoriako or.**» zutabean, ingurumen ziurtagiriak eta ekoetiketak jaso behar dituzu, espezifikazio edo irizpide baloragarri bakoitza betetzen duzula abalatzeko. Dena dela, beste egiaztagiri baliokide batzuk ere onartuko dira, betiere ezarritako irizpideak bete direla argi eta garbi frogatzen bada.

Hona zenbaki bakoitzaren esanahia:

| | | |
|---|---|---|
| 1. Europar Batasuneko Etiketa Ekologikoa | EU Ecolabel www.ecolabel.eu | 5. Fitxa teknikoa |
| 2. Eskandinaviako Beltxarga Ekoetiketa | NORDIC ENVIRONMENTAL LABEL | 6. Adierazpena |
| 3. FSC | FSC | 7. Laborategiko testa |
| 4. PEFC | PEFC | |

Lizitatzaileek datu konkretuak eman beharko dituzue, edota irizpide bakoitzerako zer abal aurkeztu duzuen zehaztu; bestela, berriz, eskatutako informazioa memoriaren zer orrialdetan jaso duzuen adierazi.